

Ekainaren 24an
SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA

Eguneko Meza

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

San Joan Bataiatzailearen jaiotzaren festaburuak gain hartu dio aurten igandeari. Profeta handia, Salbatzailearen bidea prestatu zuena mundura etorri izana ospatzen dugu gaur. Guk ere bidea prestatu nahi diogu Jaunari. Guk ere toki egin nahi diogu Mesiasi. Bataiatzailearen fedea, apaltasuna eta bizitza neurritsua izan ditzagula ikasbide eta laguntza.

Damu-otoitza

San Joanek Bataioa eta bekatutik irtetea eta bihotz-berritzea oihukatu zuen. Eukaristiako mahaian parte hartzean, eska dezagun Jaunaren errukiaren laguntza:

- Jesus Jauna, on eginez mundua igaro duzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Jainkoaren promesak bete dituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Joan Bataiatzailea “amen semeetan” handienatzat goratu zenuena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko Jauna, zeure Semearentzat herri on bat prestatzeko
sortu zenuen Joan Bataiatzaile santua;
emaiozu zeure Elizari bihotzeko pozaren dohaina,
eta eraman itzazu zeure fededun guztien gogoak
bake eta salbamen bidetik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa zerbitzatzeko prest agertu zen beti Joan Bataiatzailea, eta geu ere horretarako prestatzen gaitu. Suma dezagun Jainkoak egiten digun deia bere hitza arretaz entzunez.

Lehenengo irakurgaia (Is 49, 1-6)

Isaias profetaren liburutik

Uharteak, entzun! Urrutiko herriak, aditu! Amaren sabeletik deitu ninduen Jaunak, amaren erraietatik zidan izen eman. Ezpata zorrotz egin zuen nire ahoa, bere gerizpean gorde ninduen; gezia bezala zorrotzurik, gezi-ontzian sartu ninduen. Eta esan zidan: «Zu, Israel, nire morroi zara, zukan dut gorespina».

Nik nire baitan esaten nuen: «Alferrikakoak, nire nekeak; hutsean erre ditut nire indarrak». Baina egiaz, Jaunak zeukan nire zuzenbidea; nire Jainkoak zeukan nire saria.

Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik bere zerbitzurako deitu ninduen; Jakob Beregana bihurtzeko eta Israel biltzeko; izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak, eta Jainkoa izan zen nire indar.

Eta hau esan dit: «Oso gutxi da zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak eraikitzeko eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko. Atzerrien argi egiten zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

Erantzun-salmoa (Sal 138, 1-3. 13-14ab. 14c-15)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - otz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.

Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta Zuk ezagutzen: ‘
Zuk dakizu noiz esertzen naizen, noiz jaikitzen.
Urrundik ulertzen dituzu nire gogorakizunak,
noiz nabilen, noiz natzan, Zuk ikusten duzu,
nire bide guztiak ezagunak dituzu. R/.

Nire barrena Zuk antolatu duzu,
amaren sabelean Zuk eho nauzu.
Gora Zu, hain harrigarriro egin nauzulako,
Zuk eginak hain miragarri direlako. R/.

Ederki ezagutzen zenuen nire barrua,
nire izatea ez zitzaizun ezkutua,
ezkutuan sortzen ari nintzela,
lur barrenean ehotzen ari nintzela. R/.

Bigarren irakurgaia (Eg 13, 22-26)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Paulok honela zioen: «Jaungoikoak David eman zien errege, harentzat aitormen hau eginez: "Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nire agindu guztiak beteko dituen".

Hitzemana zeukanez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joanek bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel herri osoari. Eta bere bizia bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: "Ez naiz ni, zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor Haren oinetakoak askatzeko ere".

Senideok, Abrahamen ondorengo eta Jaungoikoaren beldur zaretenok: zuei bidali zaizue salbamen hitz hau».

Aleluia (Lk 1, 76)



Zu, haurra, Goigoikoaren profeta deitua izango zara,
Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara
Hari bidea prestazera. R/.

Ebanjelioa (Lk 1, 57-66. 80)

Homiliarako argibideak

Profeta sendo eta neurritsua

Hasi gaitezke ohar bat eginez: Jesusez gain ebanjelioek gehien aipatzen duten pertsona Joan Bataiatzailea da. Honen jaiotzaz, basamortuko bizieraz, predikazioaz eta heriotzaz hitz egiten digute. Baina bada datu bat, bereziki gure arreta erakartzen duena: Joan da Jesusek goraipamen, alabantza, handiena egiten dion pertsona: “Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik” (Mt 11, 11). Gorazarre hau, alabantza hau, ez da Elizaren iritzia, Jesusek berak esana baizik.

Jesusek berak aipatzen ditu Joanen nortasuna biltzen duten hiru bertute eta iritzi, hori bermatzen dutenak: ez da haizeak astindutako kainabera bezala, ez da luxuz, dotore, jantzitako gizona ere, profeta da eta profeta baino gehiago. Hiru ezaugarri hauek merezi dute gure arreta eta gure aldetik antzera jokatzeko gogoia piztu behar lukete.

Joan ez da haizeak astinduta kulunkan dabilen kainabera. Irudi honek, kolokan dabilen, segurua ez den pertsona, zalantzan, dudamudatan dabilen norbait esan nahi du, uste sendorik gabea, konbikziorik gabea, gorabeheren arabera moldatzen dena, garaiko iritzi-tara eta modetara errazegi jartzen dena. Garai nahiko mugikorrek eta irristakorrek egokitu zaizkigunoi zerbait oinarritzkoa gogora diezaguke: egiazko balioak aurkitzeko eta lantzeko premia, nortasun benetan gizakoa finkatzen duten balioak, alegia. Iritzi sendoak dituzten pertsonak, momentuko edozein modak eramaten uzten ez dutenak, pentsatzen dakitenak, irizpide bat egiteko gai direnak, ideologia eta gertaeren aurrean egoki kokatzen edo situatzen dakitenak.

Ez da dotore janzten dena, luxurik ez du. Ebanjelioek agertzen diguten Joanen irudi apaindurarik gabeak, gaurko gizartearen beste alderdi bat gogoratzen digu: ikusmolde materialista soila gainditu beharra, ongizate-grina neurrigabetik askatzeko premia. Aurreko belaunaldiekin konparatzen bagara, gauzak soberan ditugula ere

pentsa genezake; baina bakea, gizatasuna, solidaritatea, barkatzeko gai izatea, elkarrekin taxuz bizitzea falta zaizkigu.

Joanen hirugarren ezaugarria hau da: *profeta izatea, profeta baino gehiago izatea* gainera. Joan bere esperientziatik Jainkoaz hitz egiten dakien gizona da. Baina zerbait gehiago ere bada. Joan Bataiatzailearen irudiak, eskulturak eta pinturak, hatzez, behatzez zerbait seinalatzen ari dira, norbait erakusten: Jesus. Joanen keinu hori gonbite bat dugu, Jesusengan eta honen Ebanjelioan arreta ipini dezagun, fija gaitezen.

Ebanjelioak gizartea antolatzeko errezetarik eta legerik ez du eskaini nahi; baina beste asmo aberatsago eta zailagoa dauka: gure bihotza argitu, ukitu eta mugitu nahi du, pertsona barrutik etengabe eta aspergabe alda dadin. Zuzen, bihotz-garbiko, bakezale egiari leialak, senidetasun sortzaile egin gaitezen. Izan ere, gizakiaren barrua aldatzen ez bada, aldatuz joaten ez bada, antolakuntzak eta erakundeak, oso ongi finantziatuak badira ere ez dute balio; asmo garbirik ez badago, egia manipulazio interesatu bihurtzen da; bakea egitean, amore emateko gaitasunik ez badago, beka-hitza etengabe badarabilgu ere, bakea hitz hutsa besterik ez da.

Joan Bataiatzailearen nortasunetik hau jaso dezakegu gaurko egun honetan: nortasun handiko pertsona dela; egiazko balioetan bizitza oinarritzen eta orientatzen duen pertsona; Jainkoarekin topatzeko zoria izan duen pertsona eta Jainkoagan bere bihotza aldatzeko eta taxutzeko, eratzeko, gai dena.

Jainkoaren herriaren otoitza

San Joan Bataiatzailea Kristoren bide-prestatzaile bidaliz bere errukia agertu dio Jainkoak munduari. Egin diezaiogun otoitz gizaki guztien alde.

- Jainkoaren Elizak ausardiaz zabal dezan Kristoren Berri Ona, gizaki guztiak bihotz-berritu eta Salbatzaile aitor dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
 - Israel herriak Joanen eta profeta guztien hitza entzunik Kristorengan aitor dezan itxaroten duen Mesias Salbatzailea. Eska diezaiogun Jaunari.
 - Bekatuaren morrontzapean bizi direnek aurki dezaten beren bidean bihotz-berritzera deituko dituen deia. Eska diezaiogun Jaunari.
 - Joan Bataiatzailea aurretik izan zuen Kristok izan gaitzala gu leialtasun berarekin jarraitzaile zintzo. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bedeinka, errukiaren Aita, Zure herria eta Joan Bataiatzailearen bitartez zugar bere uste ona jarri duenez gero emaiozu fedez eskatu dizuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zeruko Bildotsaren mahaian indarberritu gaituzu, Jauna;
egizu, egun honetan Joan Bataiatzailearen jaiotza
pozez ospatzen duen zure Elizak
jaiotza berriaren egilea ezagutu dezala
berehala etortzekoa zela hark erakutsi zuen zure Semearengan.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**